

KREDITUEN ONARPENA, ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZA MAILAN

2020ko Plana

I. ECTS-en ONARPENA:	2
II. MUGAK KREDITUEN ONARPENEAN:	5
III. JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA KREDITUEN ONARPENERAKO:	5
IV. BALIOZKOTZEAK / ONARPENENAK KUDEATZEKO URRATSAK:	6
V. KREDITUEN TRANSFERENTZIA.....	6
VI. ESPEDIENTE AKADEMIKOA.....	6
VII. ANTZEKO TITULAZIOAK.....	7

ECTS onartzeari dagokionez, 1393/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa jarraituko da.

I. ECTS-en ONARPENA:

Kredituen onarpena da, ikasleak, irakaskuntza ofizial batzuetan, Mondragon Unibertsitatean edo beste unibertsitate batean, lortutako kredituen onarpena, baldin eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduak irakaskuntzetan konputatzen badira, titulu ofizial bat lortzeko helburuarekin.

Fakultate honek, kredituak onartu ahal izango ditu, beste unibertsitate batzuetan edo beste titulu batzuetan egindako irakaskuntzengatik, egokitzapena dagoenean, ikasleak, ikasitako egokitzapena dagoenean, ikasleak, ikasitako materiei lotutako konpetentzien zein ezagutzen, eta ikasketa planean aurreikusitakoaren artean. Zeharkako kredituen kasuan, hauek onartuak izango dira, irakastordua ECTS kredituetan, antzekoak direnean; gradu amaierako lanari dagozkion kredituak izan ezik.

Hona hemen ECTS-en balizko jatorriak:

1. Aldez aurretik egin duten unibertsitate prestakuntza akademikoa (Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 34.1 artikuluan adierazitakoaren arabera), bai Mondragon Unibertsitatean edo beste unibertsitate batzuetan, hasitako ikasketak osorik edo partzialki egin diren alde batera utzita.

Onarpena posible izango da, egokitzapena dagoenean, ikasleak ikasitako materiei lotutako konpetentzien zein ezagutzen, eta ikasketa planean aurreikusitakoaren artean; horretarako, ECTSko edukiak eta irakastordua antzekoak izan behar dira ere. (Irizpide orientagarria % 80 izango da bi kasuetan), Gradu Amaierako Lanaren kasuan izan ezik.

Nolanahi ere, onartua izan daitekeen gutxieneko unitatea, irakasgaia izango da.

Aitortutako kredituak, zenbakizko kalifikazioekin kalifikatuko dira, irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Beste **titulu propioetan** aldez aurretik lortutako prestakuntza, bai MONDRAGON UNIBERTSITATEAN, bai beste unibertsitate batzuetan, alde batera utzita, hasitako ikasketak osorik edo zati batean egin diren.

ONARTUTAKO ECTS-en GUTXIENEO KOPURUA	ONARTUTAKO ECTS-en GEHIENEO KOPURUA
3	36

3. Titulazio ofizialetan aldez aurretik eskuratutako unibertsitatez kanpoko goi mailako prestakuntza, 1618/2001 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera. Onartutako kredituak zenbakizko kalifikazioekin kalifikatuko dira, irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kasu horretan, honako hauek dira onartu daitezkeen ECTS-en gutxieneko eta gehieneko kopurua.

ONARTUTAKO ECTS-en GUTXIENEO KOPURUA	ONARTUTAKO ECTS-en GEHIENEO KOPURUA
3	45

4. Mondragon Unibertsitateak, onarpen hori kontenplazten duten beste unibertsitate batzuekin sinatutako hitzarmenetan jasotako nazioko edo nazioarteko mugikortasuna.

Ikasleek, ikasketa-plan horren guztizkotik, gutxienez 6 kredituko aitopen akademikoa lortzeko aukera izango dute, unibertsitateko kultura, kirol, ikasleen ordezkariak, elkartasun eta lankidetzak jardueretan parte hartzeagatik.

Aintzatetsi beharreko jarduerak eta horiek onartzeko prozedura zehatza beste araudi batean jasotzen dira.

5. **Egiaztatutako lanbide** esperientzia.

Kasu honetan, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Ikasleak, lan esperientzia dokumentuen bidez egiaztatu beharko du, eta honetarako hurrengoak aurkeztu beharko ditu::
- Lan bizitzaren laburpen eguneratua.
 - Zuzendariaren edo goi mailako arduradunaren ziurtagiria, eskatzailearen lanbide eta lan esperientziaren fede ematen duena, eta, gutxienez, honako hauek jasoko dituenak: lanbide esperientziaren iraupena, eskatzailea zer lan-eremutan aplikatu den eta lan jardunaren ezaugarriak.
 - Eskatzaileak berak egindako adierazpena, honako hauek azalduz: garatutako lanbide jarduera, jarduera horren bidez eskuratutako lanbide konpetentziak, eskuratutako ezagutzak, eta zein irakasgai edo irakasgaitarako eskatzen den onarpena.
- b) Onartu den unitate minimoa, irakasgaia eta honi lotutako konpetentziak izango dira. EZ dira onartuko irakasgaia osatzen ez duten unitateak.
- c) Egiaztatutako esperientzia profesionalagatik kredituen onarpenerako erabilitako irizpideak hauek izango dira:
- Unibertsitate titulu bat izatea (espainiarra edo atzerrikoa)
 - Esperientzia profesionalaren denbora
 - Garatutako jarduera profesionalaren dedikazio modua, osoa (garatutako jarduera profesionalaren % 100aren baliokidea) edo partziala (garatutako jarduera profesionalaren % 50aren baliokidea).
- d) Idatzizko eskaera osatzeko, elkarrizketa bat egingo zaio interesdunari. Elkarrizketa horretan, irakasgaia (k) ematen duten irakasleek, (edo irakasleak) egiaztatuko dute, ikasleak eskuratu dituen ezagutzak eta konpetentziak, egokiak diren honek eskatutako kredituen onarpenerako.

“C)” atalean jasotako hiru irizpide horien konbinaziotik, taula hau sortzen da. Honek, eskatzen den esperientzia profesionalaren denbora jasotzen du:

KREDITUEN ONARPENA ESPERIENTZIA PROFESIONALAGATIK.

ONARPEN UNITATEAK	DEDIKAZIO OSOA (GARATUTAKO JARDUERA PROFESIONALAREN % 100AREN BALIOKIDEA)	DEDIKAZIO PARTZIALA (GARATUTAKO JARDUERA PROFESIONALAREN % 50AREN BALIOKIDEA)
GUTXIENKO UNITATEA: 6 ECTS (ETA LOTUTAKO KONPETENTZIAK)	16 hilabete	32 hilabete
GEHIENKO UNITATEA: 14 ECTS (ETA LOTUTAKO KONPETENTZIAK)	37 hilabete	75 hilabete

Enpresako praktikei dagozkien kredituak onartuak ahal izango dira, Graduak zenbait konpetentzien lorpena egiaztatzen denean, nahiz eta konpetentzia horiek guztiz bat ez etorri irakasgai zehatzekin, edo kredituak onartuak izan daitezke ere, lanbide esperientzia nahikoa ez denean, dagokion irakasgaiaren ECTS guztiak onartuak ahal izateko.

ONARPEN UNITATEAK	DEDIKAZIO OSOA (GARATUTAKO JARDUERA PROFESIONALAREN % 100AREN BALIOKIDEA)	DEDIKAZIO PARTZIALA (GARATUTAKO JARDUERA PROFESIONALAREN % 50AREN BALIOKIDEA)
GUTXIENKO UNITATEA: 3 ECTS	12 hilabete	24 hilabete
0,5 ECTS GEHIGARRI BAKOITZAGATIK	2 hilabete	4 hilabete
GEHIENKO UNITATEA: 24 ECTS	96 hilabete	192 hilabete

1) eta 4) ataletan kontenplaturako kasuengatik onartutako kredituak, ez dira konputatuko, espedientearen baremazioan.

II. MUGAK KREDITUEN ONARPENEAN:

Kredituen onarpena ekar dezaketen kasu guztietan aplika daitezke honako muga hauek, hauen jatorria edozein dela ere (kontrakoa zehazten ez bada):

- Gradu Amaierako Lana ezin izango da inola ere onartu eginkizun honetarako.
- Lanbide eta lan esperientziatik, eta beste titulu batzuk lortzeko unibertsitate irakaskuntzetatik, gehienez ere, 36 ECTS onartu ahal izango dira.
- ECTSen jatorria, jarraian definitutakoetako bat baldin bada, onartutako kredituen gutxienerako kopurua aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren jakingo da. Honetarako, ezinbestekoa izango da ere, ezarritako baldintzak gaindituta izatea (irakasgai bati lotutako edukiak eta kompetentziak). ECTSen jatorri hauetaz ari gara:
 - Unibertsitatez kanpoko goi mailako prestakuntza
 - Unibertsitateko prestakuntza akademikoa
 - Egiaztatutako lanbide esperientzia
- Eskatutako baldintzak gainditzen ez badira, ez da krediturik aitortuko.

III. JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA KREDITUEN ONARPENERAKO:

Behin ikasleak Kredituen onarpena eskatuta, hauek eragingarriak izateko, jarraitu beharreko prozedura, honako hau izango da:

Ikasle batek, unibertsitate ikasketa ofizialak edo goi mailako heziketa zikloak hasi eta/edo egin baditu, gure fakultatean matrikulatu den graduako materien baliozkotzea edo onarpena eska dezake. Horretarako, ikasle bakoitzak, salbuespenik gabe, eskabidea egin beharko du, eta, horretarako, dokumentazio hau prestatu beharko du:

- Baliozkotzeak eskatzeko orria: bete eta sinatu (VII. eranskina)
- Egindako ikasketen ikasketa espediente ofiziala.
- Baliozkotzea eskatu nahi den irakasgaien programak.

Dokumentazio hori guztia dagokion idazkaritza akademikoan (Oñati, Irun eta Bidasoa) bidali edo entregatu behar da, kudea dezaten.

IV. BALIOZKOTZEAK / ONARPENENAK KUDEATZEKO URRATSAK:

1. Dokumentazio hau jaso ondoren, Idazkaritza Akademikoak gradu bakoitzeko baliozkotzeen arduradunei bidaliko die, kredituen ebazpen orriarekin batera, berau balora dezaten.
2. Eskabidea aztertu ondoren, baliozkotzeen arduradunek kredituak ebazteko orria osatu eta sinatuko dute, eta Idazkaritza Akademikoan entregatuko dute. Horrela, eskatutako baliozkotzeak onartu edo ukatu direla jakinaraziko dute.
3. Idazkaritza akademikoak ikasle bakoitzari, txosten ofizial baten bidez, baliozkotzeen ebazpena jakinaraziko dio (onartuak edo ukatuak izan), eta matrikula kudeatuko dio, bai maila akademikoan bai administratiboan (ikaslearen azken matrikula eta hileko kuoten zenbatekoa).
4. Idazkaritza akademikoak ikasturteko arduradunei jakinaraziko die baliozkotze eskaeren ebazpena, ikasleen egoeraren berri izan dezaten.

Baliozkotzeak eskatzeko **epoa** urriaren 30ean amaituko da. Data honen ondoren egiten diren baliozkotze-eskaerak, ez dira onartuak izango, eta ikasleak baliozkotze hori eskatzeko aukera galduko du.

Ikaslea matrikulatuta dagoen ikasturteko edo ikasturtetako irakasgaien baliozkotzeak bakarrik eskatu ahal izango dira; hau da, ikasturte bakoitzean ikasturte horri dagozkion aitopenenak eskatu beharko dira.

V. KREDITUEN TRANSFERENTZIA

Kredituen transferentzia bezala ulertzen da, ikasleak, bai Mondragon Unibertsitatean zein beste batean, aurretik burututako ikasketa ofizialetan lortutako kreditu guztiak, titulu ofizialik lortu ez arren, honek jarraitutako ikasketen dokumentu akademiko ofizial egiaztatzaileetan sartzea. Espedientea lekualdatzetik datozen ikasleen kasuan, ofizioz jardungo da, beren espedientean sartzeko, titulu ofizial bat lortzera eraman ez duten eta baliozkotu ez diren beste titulazio batzuetan gainditutako kredituak, eta ez da beharrezkoa izango inolako eskaerarik aurkeztea.

VI. ESPEDIENTE AKADEMIKOA

Ikaslearen espediente akademikoan, ikasleak ikasketa ofizialetan, Mondragon Unibertsitatean edo beste unibertsitate batean titulua eskuratzeko lortu dituen kreditu guztiak jasoko dira; hau da, transferituak, onartuak edo gaindituak; eta kasu bakoitzean dagokiona adieraziko da. Onartutako kredituak direnean, honako informazio hau jasoko da jatorrizko irakaskuntzei buruz: Unibertsitatea (k), irakaskuntza ofizialak eta irakaskuntza horiek zein adarretakoak diren; lortutako materiak edota irakasgaiak; kreditu kopurua, eta ateratako kalifikazioa.

VII. ANTZEKO TITULAZIOAK

Zuzendaritzaritzaren Laguntza GMHZ etako kredituen onarpena (ULO/LOE) – GADE 2020 Plana						
GRADUKO materialak	MOTA	ECTS	IKASTURTEA	SEIHILEKOA	GMHZ Irakasgaiak Zuzendaritzaren Laguntza	Aurrez aurreko orduak
XXI. mendeko enpresak	OP	6	1.	1.	Zuzendaritzari laguntzeko proiektua	50
					Informazioaren kudeaketa aurreratua	99
Pertsonen kudeaketa	D	10	2.	2.	Lanerako prestakuntza eta orientabidea	99
					Giza baliabideak eta gizarte- erantzukizun korporatiboa	99
Guztira		16			Guztira	

Administrazio eta Finantzetako GMHZetako kredituen onarpena (ULO/LOE) – GADE 2020 Plana						
GRADUKO materialak	MOTA	ECTS	IKASTURTEA	SEIHILEKOA	GMHZ Irakasgaiak Administrazio eta Finantzak	Aurrez aurreko orduak
XXI. mendeko enpresak	OP	6	1.	1.	Enpresa Simulazioa	120
					Administrazio eta Finaren Proiektua	50
Lege eta Kontabilitate kudeaketa	OP	12	1.	2.	Kontabilitatea eta Fiskalitatea	180
					Finantza kudeaketa	120
					Enpresa dokumentazioaren eta juridikoaren kudeaketa	100
Pertsonen Kudeaketa	D	10	2.	2.	Kudeaketa eta Giza Baliabideak	99
					Lanerako prestakuntza eta orientabidea	99
					Giza baliabideak eta gizarte- erantzukizun korporatiboa	99
Guztira		28			Guztira	

Salmenten kudeaketaren GMHZetako kredituen onarpena (ULO/LOE) – GADE 2020 Plana						
GRADUKO materiak	MOTA	ECTS	IKASTURTEA	SEIHILEKOA	GMHZ Irakasgaiak Salmenten kudeaketa	Aurrez aurreko orduak
XXI. mendeko enpresak	OP	6	1.	Urtekoa	Prestakuntza Lan Zentroetan	360
					Lanerako prestakuntza eta orientabidea	99
Marketin Estrategikoa	OP	12	1.	1.	Marketin Politikak	198
					Marketin Digitala	198
Guztira		18			Guztira	

Nazioarteko Merkataritzaren GMHZ etako kredituen onarpena (ULO/LOE) – GADE 2020 Plana						
GRADUKO materiak	MOTA	ECTS	IKASTURTEA	SEIHILEKOA	GMHZ Irakasgaiak Nazioarteko merkataritza	Aurrez aurreko orduak
XXI. mendeko enpresak	OP	6	1.	Urtekoa	Prestakuntza Lan Zentroetan	360
					Lanerako prestakuntza eta orientabidea	99
Merkatu berriak eta Nazioartekotzea	OP	8	1.	1.	Nazioarteko negoziazioa	100
					Nazioarteko ordainketa motak	100
					Nazioarteko Finantzazioa	140
					Nazioarteko marketina	132
Guztira		14			Guztira	

Marketin eta Publizitatearen GMHZ etako kredituen onarpena (ULO/LOE) – GADE 2020 Plana						
GRADUKO materiak	MOTA	ECTS	IKASTURTEA	SEIHILEKOA	GMHZ Irakasgaiak Marketin eta Publizitatea	Aurrez aurreko orduak
XXI. mendeko enpresak	OP	6	1.	Urtekoa	Prestakuntza Lan Zentroetan	360
					Lanerako prestakuntza eta orientabidea	99
Marketin Estrategikoa	OP	12	1.	Urtekoa	Marketin Politikak	198
					Marketin Digitala	198
					Harreman publikoak eta marketin ekitaldien antolaketa	100
					Ikerketa Merkataritza	132
Guztira		18			Guztira	